



TXIKITO!

2024ko maiatza 224. zenbakia



Gazte eta fin
harrobia bada Eibarren



XXX. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

Badira 30 urte ...eta kitto! Euskara Elkarteak Ipurterre Ipuin Lehiaketa abian jarri zuela. Eibarko ikastetxeekin elkarlanean antolatzen duen ekimen honen helburua haur eta gazteen artean irakurzaletasuna eta idazteko zaletasuna bultzatzea da. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurten, 1.000 ipuin inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurten ere eta, beraz, irabazleei zoriontzeaz gainera, gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu parte hartu duzuen guztioi. Jarraitu idazten eta irakurtzen, Eibarren harrobi ederra dugu-eta!

eta kitto!
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ana Aizpurua

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96

Administrazioa
Marisol Uriarte





LH 1-2

Sofia Lujan (La Salle ikastetxea)

ALBERTOREN IPUINA

Bazen behin 7 urteko ume bat, Alberto zuen izena eta oso ikasle ona zen, baina oso triste zegoen, eskolan “belarrihandi” ezizena jarri ziotelako. Eta patiora irteten zen bakoitzean bere lagunak oihu egiten zioten.



Bat-batean, ke asko ateratzen hasi zen musika-aretotik, oihuak entzun ziren. Alberto hurbildu zen eta ume batzuk ikusi zituen giltzapean, irten ezinik, ume bihurriren batek atea kanpotik itxi baitzuen.

Barruan zerbait gertatzen ari zen eta deika hasi ziren. Inor ez zen ausartzen ezer egitera. Alberto, zalantza izpirik gabe, korrika joan zen egongelako aterantz. Atea trabatzen ari zen erratzari heldu eta indarrez jo zuen, haurrak azkar atera ziren eta denak salbatu ziren. Soinuak entzutean korrika zetozen irakasleek besarkatu eta goraipatu egin zuten haren kemena.



Belarriengatik barre egiten zioten haurrak lotsatuta zeuden. Hurrengo egunean ume batek ere ez zion iseka egin Albertori.

Akats fisikoak itxurazkoak besterik ez zirela ulertu zuten, baina Albertok bere lagunak musika-aretotik salbatzean zuen adorea, berriz, zerbait baliotsuagoa eta miresteko modukoa zen.





LH 3-4

Udai Mallagaray (San Andres ikastetxea)

KOLOREEN FESTA ZIRKOAN

Bazen behin Euskal Herrian zehar zebilen zirko bat, oso famatua zena. Egun batean Eibarrera iritsi zen eta Untzaga plazan egin zuen ikuskizuna. Munduko akrobata eta mago onenak zituztelako jende asko joan zen ikustera.

Halako batean, publikoan zerbait arraroa gertatzen ari zela konturatu ziren. Palomitak jaten ari ziren pertsonen ilea koloreetako bihurtzen ari zen: bati ile berdea puntu moreekin, beste bati bibote laranja, neska bati trentza urdinak... Denak izututa geratu ziren. Batzuk trapezisten soken gainera igo ziren, beste batzuk lehoiaren kaiolan sartu ziren eta beste batzuk zirkoan zehar korrika.

Azkenean magoak magia egin zuen, bere barita hartu eta denen ilea normaltasunera bueltatu zen eta hori ospatzeko festa bat egin zuten, palomita gabe!!

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Untzagako PLAZAN!!





LH 5-6

Helene Jauregi (J.A. Mogel Ikastola)

GALTZORDI

Kaixo! Nire izena Galtzordi da, gaur nire istorioa kontatuko dizuet. Ni galtzerdi bat nintzen Galtzigaltzen egindakoa, ni ez nintzen galtzerdi normal bat, baizik eta galtzerdi bat urdina, gorria eta hori kolorekoa, eta galtzerdi baten moduan nire bikotea nuen. Egun batean denda batera joan nintzen eta han hasi zen dena.



Pare bat hilabete egon ginenean, baina egun batean ume bat sartu zen eta hartu egin gintuen. Ume horrek etxera heldu eta gero bere galtzerdien kaxoia zabaldu eta han sartu gintuen. Egun batzuk pasa ziren eta umeak ni erabili ninduen, eta erabili ondoren garbigailura sartu ninduen. Handik irten nintzenean konturatu nintzen bakarrik nengoela. Umearen amak ikusterakoan, umeak kaxoi batean sartu ninduen eta han galtzerdi bakarti asko zeuden: Euskal Herriko banderarekin, ostadarraren koloreekin...



Baina beno, hori ez da inportanteena. Batzuetan umeak galtzerdiekin esperimentuak egiten zituen eta egun horretan Euskal Herriko banderakoa hartu zuen eta berarekin Argitxo egin zuen.

Egun batean, arropa garbigailua apurtu egin zen eta teknikaria etorri zen etxera, eta han zegoen Galtzita (nire neska-laguna) eta Euskal Herriko banderaren neska-laguna ere han zegoen, baina bera pozik zegoen bere mutil-laguna Argitxo zelako. Galtzitik bazekienez non zegoen kaxoia hara joaten saiatu zen baina Koskor txakurrak nire Galtzita maitea jan zuen, baina bere gorputza ez dagoenez prest galtzerdiak jateko botaka egin zuen. Galtzita korrika joan zen kaxoira umea bere atzean zegoelako eta umeak kaxoia zabaldu zuenean, Galtzita kaxoi barrura sartu zen eta besarkatu egin ninduen. Umeak hori ikusi zuenean biak bikoteen kaxoira sartu zituen.

Hurrengo egunean, amak bioi garbitu zigun baina zerbait txarto irten zen eta lehia nire gainera jausi zen eta txuri geratu nintzen. Hori pasatzeagaitik bakartien kaxoira sartu gintuzten eta umeak 2 panpin egin zituen gurekin. Eta orain askoz ere hobeto nago.



DBH 1-2

Eneko Meabebasterretxea (Eibar BHI)

PATATA

Bazen behin, 1967. urtean, Ispasterreko baserri batean, patata bat bizi zen ortuan. Patatak, sustrai bat zenetik, tortilla-patata baten parte izan nahi zuten.

Joxe Mari, baserriko jabea, udako egun bero batean uzta biltzera joan zenean, patatari izugarrizko ilusioa sartu zitzaion Joxe Mari bazetorrela ikusterakoan. Joxe Marik karreta eta patatak eramateko ontzia hartu zituen eta patatak jasotzen hasi zen eta hurrengo egunean sukaldeko mahai gainean zegoen kozinatua izateko prest. Mariaje, Joxe Mari-ren andrea, patatak zuritzen hasi zenean, ikusi zuen gure patata osasuntsurik zegoena zela eta orduan patata aparte utzi zuen eta korreoz Arguiñanon aitari bidali zion, kontserbante eta edulkorante gabe.

Bi egun iraun zuen Ispasterretik Zarautzera egin zuen bidaiak bizikleta baten gainean zegen kaxa batean. Gipuzkoan sartu zenean ez zuen asko iraun eta Azpeitin sartu eta bizikletak arazo tekniko baten ondorioz istripu izan zuen, gure patata oso triste jarri zen; baina ezusteko batean, kaleko beste puntan agertu zen Eduardo Txillida eta patata lurrean ikustean berehala ohartu zen izugarrizko kalitatea zuela, eta hiru minututan bizikleta konpondu zuen eta Zarautzera bidali zuen. Arguiñano jaunaren etxera heltzerakoan tinbrea jo eta Arguiñano jaunaren semeak, Karlos Arguiñanok zabaldu zion eta kalitate ikaragarritzko patata bat zela ikustean, sukaldera sartu eta Karlosen lehenengo patata-tortilla egin zuen, ikaragarritzko zaporea, gatz puntu perfektua, tipula kantitate egokia.

Eta egun horren ondoren Karlos Arguiñano Euskal Herriko sukaldaririk onena bihurtu zen, Txillida eskultorerik onena eta Joxe Mariren patatak munduko onenak bihurtu ziren.





DBH 3-4

Alaitz Herrera (La Salle Azitain)

ZU BEZALAKO NORBAIT

Ni Ailama naiz, 14 urteko neska arrunta. Mendiz besarkatuta bizi naiz lasaitasun handiz, Oiartzun ondoan dagoen baserri batean. Idazkera, marrazketa eta musika dira deskonektatzeko ditudan irtenbideak. Egun txarretan gauzak askatzen ditudalako eta inork ez nauelako epaitzen. Batzuetan, nire logelako leihotik begira gelditzen naiz usoei begira, beraietako bat naizela imajinatzen dudalako. Harrigarria iruditzen zait munduaren gainetik igotzeko boterea izatea; hau da, hegan egin ahal izatea. Inoiz ez zaizue burutik pasatu “Lurra irentsi nazazu eta une batez desagertzea eragin”? Niri askotan, eta hegalak edukitzea desagertzeko aukera aparta izango litzateke. Horregaitik, nagusitan, zientzialari kimikoa izatea da nire ametsetako bat, edari bat asmatzeko animalia baten atalak lortu ahal izateko.



Beste amets bat, berriz, etorkizunera begira, nire alde artistikoa erakustea da; hau da, abeslaria izatea. Jendeari nire abestiekin lagundu ahal izateko, abestiak niri lagundu didaten bezala, bakarrik sentitu izan naizen momentuetan. Musika niretzat gu geu garenaren eta une honetan bizi dugunaren ispilu gisa adierazten duen ahalmena erakustea delako.

Azkenaldian nahiko bakarrik sentitzen naiz eta nire logelak leihotik pentsakor begiratzen gelditzen naiz... Nire etxean Lierri (nire anaiari) atentzio gehiago eman diotelako betidanik. Adibidez; Ez dira asteburu bakar bat ere ez faltatu bere partidoa ikustera eta nire aurreko urteko kurtso



amaierako musika ikuskizunera ez ziren ezta amaierako zati batera ere ez agertu. Azkenean, denborarekin konturatu naiz lehenengo semea dela, eta onartu behar dudala. Horregaitik berarekiko maitasun espeziala sentitzen dute. Ni iritsi arte ume “perfektua” zela esaten zuten nire gurasoek. Hori dela eta, askotan errua botatzen didate, txarrera aldatu diodala esanez. Ez zait batere bidezkoa iruditzen. Baina hain perfektua bazen, azaldu ahalko didate zer da ba perfektua izatea? Zeren eta nire ustez ez da perfekzioa existitzen, bakoitza den bezalakoa baita eta horrela maitatu beharko genuke. Batzuetan, nire buruari galdetzen diot egunen batean bera bezala maitatua sentitu ahalko naizen...

Horretaz aparte, ikastetxean ez ditut lagun asko izateko aukera izan, beti Lierren lagunekin egotera behartu nautelako gurasoek. Zorionez, Martinek (Lierren lagun bat) nire adineko ahizpa bat du, Lea. Hari esker, gaur egun nire lagun onena da eta denbora asko elkarrekin pasatzen dugu. Nire bizitzako oinarri garrantzitsuenetariko bat bihurtu da eta beti nire alboan dago gaizki egoten naizenean eta maitasun falta sentitzen dudanean. “Jarrai ezazu aurrera ezin duzunean, horrek egiten baitzaitu gainerakoekiko ezberdin” da Leak egunero errepikatzen didan esaldia.

Berak ere musika maitatzen du. Primeran gogoratzen dut, nola pasa den urtean kaletik gindoazela konposizio lehiaketa baten kartela ikusi genuen eta ideia ona iruditu zitzaigun. Aurkeztu, elkarrekin abesti bat konposatu eta sorpresa handia eraman genuen. Uste genuena baino arrakasta handiagoa izan zuen eta lehenengo saria irabazi genuen. Ideia zaparrada baten ondoren, abestian, bakardadea sentitzeari buruz hitz egitea erabaki genuen, baina amaiera polit bat emanez. Beti aurkituko dugula gure inguruan norbait gu maitatzeko edo laguntzeko prest. Erreza izan zen guretzat sentimendu horri buruz idaztea, gertutik bizitako esperientzia bat kontatzearen antzekoa zelako.

Aurten, berriro ere parte hartzeko ideia bururatu zaigu, baina Leak ez dakiena da, abestiaren amaieran irteteko eskatuko diodala. Denbora asko daramat hau isilpean gordetzen, baina uste dut Lea gustuko dudala. Askotan esaten den bezala, berarekin nagoenean tximeletatxoak sentitzen ditut. Niretzat bera maitatzea berarekin zerikusia



duen guztiarekiko jakin-mina sentitzea baita eta hori galtzea ez litzaidake batere gustatuko, horregatik bere erantzunaren beldur naiz. Gainera, aurtengo gaiaren ideia polita da eta publikoari asko gustatuko zaiola uste dugu. Aurtengo ideia da, pertsona trans-ak kontrako sexuaren gorputzean harrapatuta egotean nola sentitzen diren.

Aurreko urtean bezala, guretzat gertutik bizitako esperientzia bati buruz hitz egitea da. Bai, Lea mutila sentitzen da; neska baten gorputzean harrapatuta dago baina nitaz aparte inori ere ez dio kontatu, zer pentsatu ote duten beldur delako. Nik beti esaten diot berak badakiela nor den, eta zer sentitzen duen; izan ere, traba egiten diotenei, ez die axola izan behar nola sentitzen den.

Etorkizunera begira, hemendik urte, hilabete, egun edo minutu batzuetara ere ez dakit zer gertatuko den baina argi daukat maitatzen dudana ondo zainduko dudala ez galtzeko.

Bizitza honetan, mundu guztiaren helburua denbora guztian ederki egotea da; gogobetetasuna, barne-bakea, maitasuna, besteekiko lotura, errealizazio pertsonala, ongizate emozionala... edukitzea. Nire ustez, berriz, bizitzan egoera batzuk errazak eta politak dira, beste momentu batzuetan ordea, gauzak okertzen dira eta ez da ezer ere ez gertatzen denetatik atera gaitezkeelako. Gaizki egoteak ez digula kalterik egin behar konturatu behar gara. Nahi ditugun gauzak ondo baloratzeko eta benetan zer nahi dugun eta zer ez jakiteko, gora-behera handiak bizi izan behar ditugu. Batez ere, gaizki egoten garen momentuetan konturatzen gara zer pertsona dauden gure alboan, guri laguntzeko prest. Haiekin gelditu behar gara, eta ez kalte egiten digutenekin. Ondo egoten garen momentuetan jende asko interesagatik hurbiltzen zaigulako. Beti egongo direlako pertsonak inbidiarekin eta bidetik harriak jarriko dizkigutenak, baina urteekin horiek saihesten ikasteko ikastaro bat da bizitza.

Niri argi gelditu zait ez naizela inoiz Leaz urrunduko, gauza onak ematen dizkidalako eta elkarrekin bat egiten dugulako.

Ni bezalako norbait aurkitzea lortu dudalako!





IPURTERRE 2024







Azenario- eta gazta-kroketak

Errezeta hau oso erraza, gozoa eta osasungarria da, nutriente askokoa. Jarraitu ondorengo pausoak eta kroketak zoragarriak egingo dituzue, etxe-koak eta lagunak aho zabalik uzteko modukoak.



OSAGIAK:

- Taza bat azenario birrindu
- Taza erdi mozzarella gazta birrindu (mozzarella begetala erabili dezakezue, errezeta beganoa egin nahi izanez gero)
- Arrautza 1
- Koilarakada 1 legamia
- 2 koilarakada olo-irin (garbantzu-irina edo integrala ere izan daiteke)
- Gatza eta piperbeltza



NOLA EGIN:

- 1.- Berotu labea. Bitartean, birrindu azenarioa testura fina lortu arte.
- 2.- Ontzi batean nahastu azenarioa, arrautza, irina, mozzarella, legamia eta gatza eta piperbeltza.
- 3.- Nahastu dena ondo ore homogenea lortu arte.
- 4.- Orearekin bolatxoak egin eta jarri itzazu aurrez olioztatutako erretiluan.
- 5.- Kozinatu kroketak labean 180 gradutan 15 minutuz.



Memory jolasa goma Evarekin

Zeinek ez du jolastu Memory-ra? Ondo pasatzeaz gain, jolas honekin garuna landuko dugu, epe laburreko memoria handituko dugu, azkarrago pentsatzen lagunduko digu eta ona da arreta lantzeko eta kontzentrazioarako.

MATERIALA:

- Goma Eva
- Fruten pegatinak
- Artaziak
- Arkatza
- Erregela



NOLA EGIN:

- 1.- Aukeratu goma Eva polit bat, kolore deigarria duen bat aukeratu dezakezue, purpurina duena izan daiteke, gure jolasa bereziagoa izan dadin, baina purpurinarik gabe ere egin dezakezue.
- 2.- Hartu erregela eta markatu arkatzarekin goma Evan 6x6cm-ko karratutxoak.

- 3.- Erabiliko dituzun frutak adina karratu egin, beti ere bider 2 eginez (bikoteak egiteko).
- 4.- Itsatsi pegatinak karratuen erdian eta listo! Hor duzue jolas dibertigarria zuentzat!

**Eta zer? 6 urtetik aurrera**

Eguna joan eta eguna etorri, Basilik ikaskideren bati eraso egiten dio jolas-tokian. Inor ez da ausartzen aurre egiten. Halako batean, ordea, ikasle berri bat iritsi da, eta Basilik burla egin dionean, begietara zuzen-zuzen begira, erantzun egin dio: ETA ZER?

**Dardarak 8 urtetik aurrera**

Maritxu eta Katalina teilatupe berean bizi dira. Zeru horren babesean, zimurrak eta urteak zenbatzen dizkiote elkarri. Bietatik dituzte ugari. Azkenaldian, ordea, zeru berak dar-dar egiten du maiz, eta, lurrikarak bezala, haien barrenean erreplikak ditu dardara horrek.

**Aitona Floren 10 urtetik aurrera**

Danel aitona zain dago eskolako atarian, egunero bezala; bera joaten zaio bila. Danelek bere kabuz moldatzeko gauza dela uste duen arren. Gaur, ordea, aitona asko berandutzen ari da, eta bakarrik abiatzea erabaki du. Etxera iristean jakingo du aitona zorabiatu egin dela eta ospitalera eraman dutela.

**BITXIKERIAK**

Erleek giza aurpegiak ezagutu ditzakete.



Jupiterren eta Saturnon euria diamantez egina dago.

200 gorpu inguru daude izoztuta Everest mendian.





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **EKAINAK 4** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Arhane pozik bere sariekin.

AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa ARHANE txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

ZU BAI MARGOLARI!

